



GABONETAKO XXXII. IDAZLAN LEHIAKETA

URRETXU eta ZUMARRAGA 2020

Urretxu eta Zumarragan, 2020ko abenduaren 6an, honako erabakia hartu du Idazlan Lehiaketako epaimahaiak:

ERABAKIA:

Saridunen izenak zeintzuk diren esan aurretik epaimahaiak ondokoa adierazi nahi du:

1. Maila batean zein bestean **partaidetza oso zabala** izan da eta lan askoren maila bikaina. Hori dela eta, benetan zaila izan da maila bakoitzeko hiru lan onenak aukeratzea.
2. Lan sarituak aukeratzeko orduan, **aukeraketa etapa ezberdinetan** egin da. Lehenengo etapan lan guztiak irakurri dira (252 eta 195); horrela, lan horien guztien artetik, txikien mailan 45 lan aurre-hautatu dira eta handien mailan 41. Segidan, bigarren irakurketa bat egin zaie lan aurre-hautatu horiei eta maila bakoitzeko azken aurre-hautaketa bat egin da: 13 txikien mailan eta 11 handien mailan. Saririk gabe geratu diren **lan asko eta asko maila oso handikoak** izan dira baita ere, baina azken irakurraldian xehetasunetan jarri da arreta eta horrela hartu da azken erabakia. Edozein kasutan, lan batzuk saritu eta besteak saririk gabe uztea ez da erraza izan.
3. Epaimahaiak bereziki **zoriondu** nahi ditu lehiaketan parte hartu duten haur guztiak, eta baita beraien gurasoak eta eskoletako irakasleak ere, haur horiengan idazteko zaletasuna sustatu eta bultzatzeagatik. Beste behin ere argi geratu da Zumarragan eta Urretxun maila handia dagoela eta hori bereziki poztekoa da, are gehiago lehiaketa honetara aurkeztu diren ipuin guztiak **euskaraz** idatziak izan direla kontuan hartuz.

A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoak)

252 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Olentzerok inoiz baino lan handiagoa izan zuen urte hartan."

1. **saria:** Aitor Núñez Rodríguez
2. **saria:** Teo Álvarez Artolazabal
3. **saria:** Malen Telleria Arostegi

B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)

195 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Egoera zailenetan ere, ez da itxaropena galdu behar."

1. **saria:** Danel Sánchez Padrón
2. **saria:** Maialen Arratibel Urkiola
3. **saria:** Markel Hernández Alarcón

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute.